

I R A G A R K I A

Auzokideen elkarteei EIT txostenean adierazitako obrak egiteko diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza aldatu egin zen 2014ko apirilaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran, Basauritik ikur frankistak kentzeko neurriak jasotzeko. Jendaurrean egon den aldian ez da alegaziorik aurkeztu eta, hartara, Udalbatzaren behin-behineko akordio hura behin betiko bihurtu da. Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua xedatutakoa betez, jarraian Ordenantza hori argitaratzen da, testuan dagozkion aldaketak eginda.

JABEEN KOMUNITATEEI ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOKO (EIT) TXOSTENEAN ADIERAZITAKO OBRAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

EAEko Lurzoruaren Legeak jasotzen ditu eraikinak kontserbazio-egoera onean mantentzeko oinarrizko premisak eta horien artean adierazita dago berrogeita hamar urtetik gorako eraikinetako jabeek Eraikuntzaren Ikuskaritza Teknikoko txostena enkargatu behar dutela. Basauriko Udalak, era berean, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoari buruzko Udal Ordenantza onetsi zuen 2011. urtean.

Basaurin berrogeita hamarko eta hirurogeiko hamarkadan eraikitako etxebizitza ugari dago, birgaitzea behar dutenak. Izan ere, birgaitzeekin etxebizitzetako jabeen bizitza-kalitatea hobetuko litzateke, elektrizitatearen faktura merkatu egingo litzateke eta, azkenik, etxebizitzaren balioa ere handitu egingo litzateke. Udala horren guztiaren jakitun da eta, beraz, EIT txostena egin eta gero beraien etxebizitzak birgaitzea erabakitzen duten jabeen komunitateei diru-laguntzak emango dizkie.

Era berean, Legeak eta aipatutako Ordenantzak xedatutakoa betetzeko helburuarekin, jabeen komunitateei diru-laguntza emateari buruzko Ordenantza hau onestea proposatzen da, birgaitze-lanak sustatzeko neurri bezala. Espero dugu horrek guztiak eraikinen mantentzea nabarmen hobetzen laguntzea, osasun eta segurtasun

baldintzetara egokitu daitezen eta estankotasun zein energia-eraginkortasun baldintzak eguneratuta izan ditzaten.

50 urtetik gorako etxebizitzaren parkea birgaitzea sustatzeko planteatutako politikak neurri bi abian jartzean dautza, batez ere: lehenengoa, jabeen komunitateei itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ematea, Ordenantza honetan jasotako obra-amaierako dokumentazioa aurkeztean gauzatuko direnak; bigarrena, % 60ko hobaria aplikatzea Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan (EIOZ).

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak ere zaharberritzearen eta birgaitzearen aldeko apustua egin du. Izan ere, horrelako obrak egin eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten jabeen komunitateei diru-laguntzak ematen dizkiete, besteak beste, EIT (Eraikuntzaren Ikuskaritza Teknikoko) txostena egiteko; txosten hori egitea ezinbestekoa da Udalaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak lortzeko (bi diru-laguntza horiek bateragarriak dira).

Basauriar guztiei informazioa helarazteko kanpaina bat egingo dugu, diru-laguntzen eta horiek eskuratzeko bete beharreko baldintzen berri, EIT txostenak egiteko baldintzen berri, zaharberritzeak/birgaitzeak dakartzan onuren berri eta abarren berri emateko.

Lehenengo artikulua.– Diru-laguntzen xedea.

Ordenantza honen xedea da sustatzea etxebizitzetako eraikinetako jabeen komunitateek egitea Etxebizitzetako Ikuskaritza Teknikoa egin osteko txosten teknikoan (EIT txostena, aurrerantzean) jasotako birgaitze, zaharberritze, konpontze edo hobetze lanak.

Bigarren artikulua.- Etxebizitza eraikinek bete beharreko baldintzak.

Diru-laguntza hauek jaso ditzaketen etxebizitza eraikinek 50 urte baino gehiago izan behar dute eta, beraz, derrigorrezkoa dute EIT txostena edukitzea, ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/06 Legearen 200. artikulua ezarri bezala. EIT txosten hori dagokion teknikari eskudunak sinatuta egon behar da, EALk (Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legeak) xedatu bezala.

Jabeen komunitateek aipatutako EIT txostena eta beharrezko dokumentazio tekniko guztia erantsi beharko diote obrak egiteko lizentziaren eskabideari.

Hirugarren artikulua.- Diru-laguntza eskatzea. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Jabeen komunitateek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Diru-laguntzaren eta obra-lizentziaren eskabidea, teknikari eskudunak sinatutako beharrezko dokumentazioa erantsita. Aurkeztu beharreko dokumentazio tekniko horrek ikur frankistak aurreikusi beharko du, honako hauek kasu: armarriak, plakak eta altxamendu militarra, Gerra Zibila edota diktadura goraiatzaren duten bestelako objektuak, eraikinetako fatxadetan edota beste edozein tokitan daudenak.

Dokumentazio teknikoak halakorik jaso ezean, diru-laguntza eskatzen duen komunitateak auzokideen batzarrean adostu beharko du Basauriko Udalari eraikinaren fatxadan edota beste edozein tokitan dauden ikur frankistak eta Gerra Zibila zein diktadura goraiatzeko bestelako objektuak kentzeko baimena ematea, eta Udalari hala jasotzen duen egiaztageria aurkeztu beharko dio.

- Eraikinaren EIT txostena.
- Jabeen komunitateak obra egiteko erabakia hartu duela jasotzen duen agiria. Agiri horrek jasoko du, era berean, komunitatearen presidentea edo administratzailea ahalordetuta egongo dela komunitatearen ordezkari jarduteko, diru-laguntza jasotzeko eta ordainageria emateko.

Jabeen komunitate bakoitzari diru-laguntza behin bakarrik emango zaio, EIT txostenean jasotako obra guztiak egiteko. Hori bai: obrak faseka egin ahal izango dira, duten premiaren, prezioaren eta abarren arabera.

Laugarren artikulua.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Udal diru-laguntzak itzuli beharrik gabekoak izango dira. Horien zenbatekoa exekuzio materialaren aurrekontuaren arabera zehaztuko da, honako banakatze honen arabera:

- a) Obrak egiteko exekuzio materialaren aurrekontua 10.000 €-ra artekoa bada, ez da diru-laguntzarik jasoko.
- b) Obrak egiteko exekuzio materialaren aurrekontua 10.001 eta 40.000 € artekoa bada, 1.000,00 €-ko diru-laguntza jasoko da.
- c) Exekuzio materialaren aurrekontua 40.001 €-tik gorakoa bada, 1.500,00 €-ko diru-laguntza egokituko zaio.

Bosgarren artikulua.- Finantza-baliabideak.

Arau honen aplikaziorako aurreikusitako baliabideak Basauriko Udalaren Urteko Aurrekontuan agertzen direnak izango dira. Aurrekontu-partida handitu ahal izango da Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araudiak adierazitako moduan.

Seigarren artikulua.- Onuradunak.

Diru-laguntza hauen onuradun izango dira 50 urtetik gorako etxebizitza erakinetako jabeen komunitateak, eraikinaren EIT txostena izan eta bertan ezarritako edota gomendatutako obrak egingo dituztenak.

Jabeen komunitateek horri buruzko erabakiak hartu ziren auzokideen bileran emandako eskuordetze-ahalordearekin beren izenean ari den presidentearen datuak jaso beharko dituzte diru-laguntza eskabidean.

Zazpigarren artikulua.- Diru-laguntzak kudeatzea.

Udalak administrazio egintza berean emango du obrak egiteko udal-lizentziari buruzko eta diru-laguntzari buruzko ebazpena.

Ez zaie diru-laguntzarik emango obra egiteko beharrezko dokumentazio teknikoan eraikinetako fatxada edota beste edozein tokitatik ikur frankistak eta armarriak, plakak eta altxamendu militarra, Gerra Zibila edota diktadura goraipatzen duten bestelako objektuak kentzea jaso ez duten auzokideen komunitateei, edota auzokideen batzarrean Udal honi ikur horiek kentzeko baimena eman ez diotenei.

Zortzigarren artikulua.- Diru-laguntza ordaintzea.

Esleitutako diru-laguntza ordaintzeko agindua Alkatetzako Dekretu bidez emango da, obren lizentziari buruzko dekretuak eskatutako obra-amaierako dokumentazioa aurretiaz aurkeztuta, Udal Zerbitzu Teknikoen aldeko txostena jaso beharko duena.

Bederatzigarren artikulua.- Bateragarritasunen erregimena.

Bateragarriak dira Ordenantza honetan jasotako diru-laguntzak eta Basauriko Udal honek irisgarritasunaren arloan emandakoak. Bigarren hauek Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Udal Ordenantzan arautzen dira.

Era berean, diru-laguntza hauek bateragarriak dira Eusko Jaurlaritzak eraikitako ondarea birgaitzeko emandako diru-laguntzekin.

Hamargarren artikulua.- Indarrean sartzea.

Ordenantza honek atzeraeraginezko ondorioak izango ditu, 2013ko Aurrekontu Orokorraren behin betiko onespén datara artekoak (2013/04/07).

Basaurin, 2014ko uztailaren 17an.

ALKATEA,

Andoni Busquet Elorrieta.